

## LH 1, 2 eta 3

### AURRE EZAGUTZA AKTIBATU!

**Bisitan etorri aurretik ikastetxean ondokoa egitea gomendatzen dugu.**

**Irakaslearentzako gidoia.**

Euskararen Etxera etorri aurretik garrantzitsua iruditzen zaigu landuko dugun gaia martxan jartzea, hemen ikusiko dutena pixka bat jakin dezaten. Hori dela eta, ikasleek hizkuntzei buruzko galdetegia eta hausnarketa egingo dute.

- **IRAUPENA:** 35-40' minutu
- **IRAKASLEARENTZAKO AZALPENAK:**

Irakasleak ikasleei ariketaren helburua azalduko die. Bakarka egingo dute lan hasieran; horretarako, banatu orri zuriak eta arkatz/boligrafo/margo bana. Irakasleak honako bost galderak egingo ditu, eta ikasleek beraien erantzunak emandako orrian idatzi edo margotuko dituzte.

<b>Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu?</b>
<b>Zenbat hizkuntza daude munduan?</b>
<b>Zenbat hizkuntza erabiltzen dituzu etxean? Eta eskolan?</b>
<b>Zertarako balio dute hizkuntzek?</b>
<b>Nola ikas daiteke hizkuntza bat?</b>

Galdera guztiei erantzun eta gero, jar daitezela ikasleak launaka. Har ditzatela 5 minutu beraien artean erantzun dutenari buruz hitz egiteko. Lagungarriak izan daitezkeen galderak: Zer erantzun duzue galderetan? Zergatik? Erantzunak errepikatzen dira? Ez/bai? Zergatik?

Azkenik, talde handian, erantzundakoei buruz hitz egin. Aipatu diren erantzunekin ondorio batzuetara iristen ahalegindu. Zer dakigu hizkuntzei buruz? Eta euskarari buruz? Hizkuntza asko edo gutxi ezagutzen ditugu?

- **BEHARRAK:** Orri zuriak eta arkatz/boligrafo/margo.